

# Erakundeen garrantzia

Aldaketa handiak datoz literaturaren eremuan Unibertsitatean Sartzeko Proban (USaP) euskal literaturari buruzko programa berria sartu baita

JON KORTAZAR

**A**spaldi hasi nuen zutabe honen mezua adieraztekoan, esan zidaten euskal literaturaren munduan gertatzen ziren berriak agertzea zela bere helburu nagusia, euskal literaturan hilero-hilero berritasunak agertuko balira bezala.

Gurea, askotan esan dut, mantso mugitzen den egitura dugu. Lur-ikara handi bakoa, urtean-urtean estrategiak errepikatzen dituen, eta noiz edo noiz, espero ez dugunean, aldaketak ekarri ohi dituen. Baina noiz-behinka, soltean bezala, pitinka-pitinka.

## Aldaketak irakaskuntzan

Badirudi Unibertsitatean Sartzeko Proban (USaP) programa berria zabaltzen ari dela Bigarren Mailako Institutuetan. Euskara eta literatura ikasgaiaren argibi-

de orokorrak (2025eko azaroko idazkia ezagutu dugu) deituriko informea zabaldu dute Rakel Iruarrizagak eta Eneko Zuloagak, programaren arduradunek.

Hiru alde ditu proposamenak. Ohar orokorrak eta azterketa berriaren ezaugarriak deskribatu ondoren gaitegiak atal bi ditu. Lehen atalean Literatura Programa eraberritu dute, 'Literaturari buruzko gaitegia eta materialak' izenburupean. Bigarrean 'Hizkuntza eta gizartea atalari lotutako gaitegia eta materialak' aipatu dituzte.

Hemen guri lehen atala, Literaturari dagokiona, interesatzen zaigu. Atal horrek aurpegi bi ditu. Batetik, XX. mendeko euskal literaturaren historia zehaztu du programak. Bestetik, hiru irakurketa, hiru obra literario aipatu dituzte, datozen urte batzuetarako, zeren aldatuko baitituzte urte ba-

tzuk barru, beharrezko irakurketa gisa.

## XX. mendeko euskal literatura

Hiru garai nagusitan banaturik, modernitate aurrea, modernitate, posmodernitate, XX. mendeko euskal literaturaren historia nagusi bat proposatu dute egileek gure aro garaikidea aztertzeko. Ezaguna zait banaketa, eta handik eta hemendik eman ditudan zenbait hitzaldi eta ikastaroetan aipatu dudana denez, akort

**Liburu horiek aipatu eta argitalpen salduenen zerrendak aldatu egin ziren ikasturtearen hasieran**

izan behar. Ohiturazko eleberriekin hasten da ibilbidea, eta Txomin Agirre da nagusi garai horretan. Euskal Pizkundearen poesian Lauaxeta eta Lizardi aipatu dituzte- ordena horretan!. Gerra osteko lehen garaian erbestea ageri da, eta zuzen ageri ere, eta molde tradizionalen jarraipena. Gerra aurreko modernitatea ahaztuz, Txillardegia eta Saizarbitoria jartzen dira modernitatearen mugarri gisa, euskal poesiaren modernitatearen ikur Gabriel Aresti jarritz. XX. mendearen bukaeran askotariko narratiba eta askotariko poesia aipatu dituzte, Atxagaren kontakizuna eta Sarrionandiaren poesia aipatuz.

Bederatzi idazle dira goraiptuak, eta izen bakoitzaren inguruan sateliteak jarri badituzte ere (eta emakumeen papera indartu) susmoa dut praktikan eta nagusiki bederatzion sorkuntza lana

hartuko dela kontutan.

## Hiru liburu irakurtzeko

Programan hiru liburu proposatu dira irakurgai nagusi gisa. Bernardo Atxagaren 'Bi anai', (Erein), Karmele Jaioren 'Aitaren etxea' (Elkar) eta Miren Agur Meaberen 'Azalaren kodea' (Susa). Puntu honetan oreka, zuhurtzia, tentua eta kontua nagusitu dira. Erkidego Autonomoko hiru argitaletxe nagusi (agian nafarrek galduko dute enbetean), bakoitzetik liburu bana, emakumeen eta gizonen arteko neurria emakumeen alde aldatzea, poesia ez ahaztea... Adibide zehaztetik gain, kanon baten eraketa dirudi proposamenak, eta gero eta ugariago entzuten ditut ahotsak esanez euskal literaturaren irakaskuntzan beharrezkoa dela kanon bat hornitzea.

## Erakundeak eta literatura

Zalantzarik gabe proposamen horrek eraginak izango ditu literaturaren irakurketan eta merkatuan. Liburu horiek aipatu eta argitalpen salduenen zerrendak aldatu egin ziren ikasturtearen hasieran. Ikusiko dugu nolakoa izango den eragin hori, baina hasi aurretik ikus dezakegu kanonaren inguruko eztabaida piztu dela arautegi horrek.

# Enpatia jolasa

JON MARTIN-ETXEBESTE

Animalien arteko ezkutaketa jolasa erakusten du ipuinak eta etorri berri den lepaluzeak ez du lagun zaharren artean bere lekua topatzen. Handiegia da, baldarregia eta inuzentegia. Lidergoa daraman tximuak modu petralean gogorarazten dizkio ezaugarriok; jirafak, ordea, ezberdintasunetan sakondu ordez, batez ezberdintasuna abantaila bihurtzeko moduak asmatzen ditu. Azken finean, bere altuerari esker aparteko perspektiba batetik aztertu dezake errealitatea. Harekin kontrastean, inurriak hain du burua lur-raren parean ezen ezin baitu igo duen hura animalia bat denik igarri ere. Bazterketaren eta inklusioari buruzko istorio sinplea da album honetakoa, baina oso ondo exekutatua dago.

Arrakastaren gakoak bi dira. Batetik, pertsonaien hautaketan bete-betean as-

matzen su Staal-ek jirafa eta txakala kontrajarrita, komunikazio ez bortitzeko bi animaliak baitira: enpatia eta zakarkeria. Bestetik, marrazkien bizitasuna nabarmendu behar da, album ilustratu honen indargunea. Haurrak berehala identifikatzen dira alfa eta beta rolak jokatzeko dituzten hominidoarekin eta kanidoarekin; eta, aldi berean, inoiz sentitu dira jolasetatik apartatuko lepaluze. Emozio identifikagarriak marraztu ditu Trevè-k inperfekzio kontrolatuz. 50eko hamarkadako ilustrazio amerikarraren eragina sumatu daiteke. Haren paletan kolore beroen alde

egiten du: hori, laranja eta arreak dira nagusi pertsonaiaz eta atzealde urdin apalak eta zuriuneak. Espazialki garrantzia duten elementuak (ezkutaketarako balio dien karraskilo eta zuloak) nabarmenduta daude eta apalduta gainerakoak; ekintzaren norabidea argi seinalatzen zaie hurrei eta arreta bizi-bizirik mantentzen. Azkenik, materialez asko hitz egiten ez bada ere, estimatzen da kartoizko euskarri sendoa (300 gramokoa) etxeko txikiaren eskutxo suntsitzaileen oldartzeak eta horzkadak jasateko modukoa.

**NON EZKUTATU DAITEKE JIRAFAN? SHAKTI STAAL/NICOLAS TRÈVE**  
Tarttalo  
20 orr, 13 euro



# Euskadiko Filmategiak zinema ziklo «berritua» aurkeztu du

JUNCAL MUNDUATE

Iazko edizioan iragarri zuten. Orain arte ezagutzen genuen Euskal Emakume Zinemagileen Zikloak amaiera jo zuen 2025ean. Euskadiko Filmategiak antolatutako bosgarren ekitaldia zen hura. Aurtan bueltan da, baina zenbait aldaketarekin. Andre zinemagilei eskeinitako programa hori «berritu» eta «zabaldu dute» antolagileek euskara eta ondarearen mesedetan. Izena aldatu –orain Euskal Zinema deituko da– eta hiru ardatz zehaztu dituzte egitasmo berrirako: ondare zine-matografikoa, urteurrenei lotutako programazioa eta, nola ez, emakume zinemagileen inguruko lanketa.

Datorren asteazkenean, apirilaren 15ean, hasiko da zikloa Gasteizko Artium museoan, eta Bilboko Bizkaia Aretoan zein Donostiako Tabakalera ere izango da. Guztira, hamasei film eskainiko dituzte, hamar saiotan banatuta. Horien artean, estreinaldi bat izango da: Gorka Bilbao eta Koldo Almandoz zuzendarien 'Itzalak argitzen' dokumentala, 1980ko hamarkadan estreinatutako lau euskal filmen za-



Mirentxu Loyarte, zinemagile iruindarra. E. c.

harberritze prozesua jasotzen duenak. Antolatzaileen arabera, ziklo berriak lotura estua du bere aitzindariarekin, hau da, Euskal Emakume Zinemagileak programarekin. Izan ere, Mirentxu Loyarte zuzendaria –iaz zendua– egitasmoaren protagonistetako bat izango da. Hark zabaldu bideei erreparatzeko asmoz, emanaldi bikoitza antolatu dute. Batetik, Loyarteren lehen filma, 'Irrintzi', emango dute, eta, ondoren, Iratxe Fresnedak hari buruz egindako 'Irrintziaren oihartzunak'.

## SALDUENAK

### FIKZIOA

- Dena zulo bera zen** Eider Rodriguez. Susa.
- Zaldi bat** Maddi Ane Txoperena Iribarren. Txalaparta.
- Barne zerbitzuak** Katixa Agirre. Elkar.
- Barraskiloek baino bat gehiago** Ane Labaka Mayo. Erein.

### EZ FIKZIOA

- Harrizko bihotza** Karmele Jaio. Elkar.
- Esnatu ala hil** Iñaki Goikoetxea/Garikoitz Iurrebaso. Elkar.
- Esne-berriketan**. Uxue Alberdi. Elkar.
- Denbora bizigarroi baterako** Marina Garces. Jakin.